

Ebaren alukeriak

Udaberriro Olinpoko gailur miragarriak atzean utziz, sekretuz beteriko lanbro artetik, bizitza hauskorren artera jaisten ei da Eros, gizakion bihotzak maitasunaren txinpartekin urtzeko . Hori esaten zuten behintzat antzinako greziarrek. Hilezkortasunaren erreinuko ederrena, amodio zoramenezko gezi magikoekin, jainko eta gizakume guztien arrazoia bahitu eta sentipen sutsuen zurrunbilora gidatzen zituena.

Sasoia nabari epeltzen hasia zen eta giro gozoa arnas zitekeen martxoaren bukaera hartan. Hiriko mimosak bazekiten landarediaren tertzioa azkenik iritsia zela; kolore beilegiz horniturik, hostoak udaberriari zabalik. Lorategiak lili jaioberriz beteak zeuden eta etxeetako balkoiak bizitasunez gainezka.

Berritzeko tenorea da udaberria, izan ere, bizitzaren zikloa berriz hasten delako. Maitasunaren eta gaztediaren garaitzat ere hartu izan ohi da eta Ebak bere ibilbidea norabide horretatik zuzentzeko erabakia hartua zuen. Maitasun eta maitale hutsen itsasoan hainbat igeri egindakoa zen, inoiz bere desio ezkutuenak gauzatu barik. Erosen geziak aspaldi atzeman zuen; benetan amorante sutsua zen. Ordea, bazeramatzan hilabete batzuk, bere kontzientzia deabrutxo gorriak hartuta zuela, ideia gaziz gainezka. Neguan ilunabarretako izotzak Ebaren ametsek desegiten zituzten, udaberriko beroaren premiarik gabe. Besteen amodio beharrizanak asetzearen ikasgaian, guztiz trebatuta bazegoen arren, inoren besoetan erortzen utzi eta fantasien unibertsoan murgiltzeko itxaropenean bizi zen Eba. Desertuan ikusten zuen bere burua, oasi egarriz.

Umetan bere ile kizkur gorriaz lotsatzen zen, baita aurpegi gozo eta leunean zituen pekatxoez ere. Amonak, jaungoikoak marraztutako ezti tantak zirela esaten zion, aingerutxoak bezain samurra zelako. Berak ordea betiko bizitza, infernuko haragikerian erroldatuta igaroko zuela baiesten zuen behin eta berriz. Hautzaroan hainbeste gorroto izan zituen ezti-peka horiek, sorgin-pozoi bihurtu ziren denborarekin, begi urdin liluragarri haiekin batera. Bularralde nabaria, aldaka zabalak eta ipurdi borobila; beti beltzez jantzita, iluntasunaren erresumako jainkosa ematen zuen. Ez zen XXI. mendeko edertasun kanonak betetzen zituen neska lerdana, oster,

aparteko xarma zeukan. Nonahi zegoela, denen begiradek hara ihesi. Denek tentagarri ikusten zuten; bere larruazalak magnetismo xarmangarria zeukan. Ebak bazekien hori eta ikaragarri gustatzen zitzaion. Boteretsua sentitzen zen, besteengan kontrola ezina zen sentimendu bat sortzen zuela ikusita.

Ebak udaberriari baiezkoa eman zion, beraz, desioaren txinparta lizunetan desegingo zuen maitale suharraren bila hasiko zen. Ostiralak jo zuen asteburuko atea eta aukera paregabea suertatu zitzaion; kale-kantoiko taberna irlandarrak hamar urte betetzen zituen eta urteurrena ospatzeko mozorro jaia antolatu zuten auzoko gazteek. Jende ugari espero zen, beraz, aukera paregabea, Psique bihurtuko zuen Eros partikularra bilatzeko. Platonek esaten zuen, premiak sortzen zuela beharrezana. Horrela zegoen, nahigabeturik, desio egarria ase ezinean.

Maskarada gauerdi alderantz zen izatekoa. Ordulariko orratzei korrika egin araztea nahiko lukeen, baina delako jaia heldu orduko egun guztia zeukan aurretik.

Goizero bezala, amonarena izandako telefono gorri zaharra hartu eta udaleko trafikoko zerbitzura deitu zuen hiriko irteeran auto-ilararik bazegoen jakiteko, sarritan sortzen baitziren. Bide batez, beharlekuaren atzealdeko parkingean aparkaleku librerik geratzen ote zen galdetu nahi zuen. Telefonoa erantzuten zuen neskatoak beti hitz egiten zuen adeitsu, oso atsegin. Pare bat urte baziren elkar ezagutzen zutela, "ahotsez" noski. Neskatala berbaera finekoa zen oro har, baina egun horretan zerbait berezia zeukan ahotsean, eztitsu mintzo zen. Ebaren arnasa bizkortzen hasi zen bat-batean. Begiak itxi eta birrikak airez bete zituen, apurka-apurka lasaitzen saiatzeko; ezin ordea. Arnasestuka, aukeratik jaiki zen kamiseta izerdiz paparrera itsatsita. Biak eskutik helduta melodia gozoen lainoetaraino hegan egiten irudikatu zituen. Hodei politenaren gainean, batera, izarrei begira. Neskaren hauskortasuna haizeputz soil batekin apur zitekeen. Haren bular ttikiak laztantzean, sortu berriak diren arrosen antzera uzkuratu ziren eta orduan muxu eman zien, lora ahul haiei eta pasio lurrinez horniturik elkar besarkatu zuten, gogoz, sendo. Begietara begiratuz, beldurrari estalkia kendu zioten, batak besteari ezpainekin gorputza marratuz. Eba pasioz lehertzeko zorian zegoen sumendia zen.

Momentu horretan hasperen egin zuen, pospolinaren kantu minbera bailitzan.

- Bai? Barkatu, arazorik? Ondo zaude? - telefonoaren bestaldetik.
- Eh... bai, zera... hau... katuak hozka egin dit eta, jeje... eskerrik asko - urduri, eskegi egin zuen telefonoa Ebak.

Erosek zegokion geziaz eman zion edo hiritar guztien geziek bera atzeman zuten? Korrika joan zen komunera, ur hotzarekin beroa freskatzeko. Ispiluari so egin zionean sekulako barre-argara atera zitzaion. Ez zekien ondo urduritasunagatik edo gertatutakoa benetan barregarria zelako. Lotsak zaku batetan sartu eta errekarra jaurtiak zituen horrezkero. Hala eta guztiz ere, beldur guztiak galdu zitueneneko momentuaz ez zen oroitzen.

Kotxeko giltzak hartu eta etxeko eskailerak jaitsi zituen lanerako bideari ekiteko. Trafikoari zegokien argibideei jaramonik egin ez zenez, hiritik irteteko errepiderik luzeena hartu zuen, hori baitzen trafiko gutxienekoa. Inongo arazo gabe heldu zen beharlekura eta berehala aparkatu zuen. Telefonoko neskatoaren gorabeherak zirela eta, goizeko kafe barik geratu zenez, bulegora igo aurretik lankideekin bazkaltzen zuen taberna txiki hartaraino hurbildu nahi zuen gosaltzera. Taberna polita zen oso, sei bat hilabete atzera berriztatua. Sartu eta eskumatara barra txikitxo bat zegoen "u" formakoa. Beste aldean, lehenengo egurrezko pare bat mahaitxo, bakoitza lau eserlekurekin eta atzeko partean narru-koloreko sofa bi. Horma guztietan erdiraino azulejoa zegoen; beilegi eta berde koloreko irudiak zituenak - retro airea ematen zioten lokalari - beste zati guztia urdin argiarekin margoturik.

Kristaletik ikusi zuen tabernari berria; goitik behera barrenak astindu zitzaizkion. Haren edertasunari begiratzeak min ematen zuen. Adonis berpiztu eta zeruetatik jaitsi zen, lerdentasunaren erakusketa magikoa, zoragarria eskaintzeko. Begi beltz haiek, aiztoaren aho zorrotzenak bezala mozten zituen bihotzak, begirada gori hura gehiegizkoa zen. Bera bezala, arropa beltzarekin huraxe ere, ilunaren xarma ezkutuaren mantuaz jantzirik.

Taberna hutsik zegoen, hura zen momentua, atetik sartu eta barrako atzealdera hegan egiteko, Adonis haren ondora, elur gogorra gesaltzeko gai ziren begi haien magalera. Elkar behatu, ukitu, sentitu, usaindu, dastatu... gorputzak bat egiteko haragi gordinaren desioz gainezka. Alkandora ahoarekin apurtuko zion eta oso-osorik paradisuetik eroritako fruitu debekatu hura irensteko. Azaleko ile guztiak puntan zituen Ebak, irrikaz onetik aterata. Galtza bakeroetako josturen igurtzaldiak, plazerezko uretan murgiltzen zuten. Munduaren aurrean, akelarrerik zoroenean bezain gordin narrutan egiteko prest zegoen.

<<Taup, taup>> bihotzaren taupaden oihartzuna buruan sumatu zezakeen Ebak. Horrek ekarri zuen bere onera. Berriro ere gertatu zitzaion; fantasiek agintea hartua zuten zentzuaren kontra. Bazeramatzan aste batzuk inorekin oherik konpartitu gabe. Behar bada uste edo nahi baino gehiago eragiten zion horrexek.

Tabernako ate aurrean josita zegoen, barrura sartzea ez zen ideia ona bederen. Buelta eman eta kalea gurutzatu zuen, agudo lantokirantz joateko. Gogoz hats hartu eta bulegoko atea zabaldu zuen. Lankideak <<egun on>> esanez agurtu zituen, laster batean bere lekuan jartzeko. Eguna apur bat korapilatsu hasia zen, baina ostiraletan goizez soilik aritzen ziren, bada, lanaldia erraza izango zen.

Ordenagailua piztu zuen lanari ekiteko. Pare bat aste arinago, programa berriak instalatu zituzten eta Eba ez zen lar ondo konpontzen. Denbora alperrik ez galtzeko, Gorkari, idazkariari, laguntza eskatu zion. Hau, besaulkiaren atzealdean jarri zen. Ebaren eskua hartu zuen mausaren gainetik kendu eta azalpenak eman ahal izateko. Idazkaria ikusezina zen berarentzat. Zortzi urte zeramatzaten batera lanean, aldiz, ez zuten elkar askorik ezagutzen. Eba hermetikoa zen erabat lana eta bizitzako esparrua bereizteko kontu horrekin. Ordea, eskuek ezustean topo egin zuten. Leuntasunez besoa ferekatu zion, gozo, fin, izar iheskorra bailitzan. Esku eder haiek, iluntzeko argia bezain otzanak, zirrara eragiten zuten. Atzamar luzeak, ukitzeko modu hura; ortzi-mugako lerroak bezain sentibera eta apala. Hatz-mamiekin ezpainak laztandu zizkion, epel. Samatik beherantz jarraitu zuen astiro, irrikaz beteriko tontor bi haien artetik beherago, larruazala gozamenek erretzear, Venus mendira iritsi arte. Odol-jarioa

bizkortu zitzaion, bularrak tente eta mardul ipini ziren, gorridura zilborretik titietaraino zabaldu zen; ilargian zegoen. Kilimak gorputzeko bazter guztietan sentitzen zituen plazerez irakiteraino, zentzua galtzeko zorian.

- Ulertu duzu Eba? - galdetu zion Gorkak.

Isilunea. Eba begiak itxita zegoen pantailaren aurrean. Gorantz begiratu eta irribarre urduri batekin erantzun zion:

- Bai, bai, lasai. Bestela ere konponduko naiz maina hartu arte. Mila esker.

Eskerrak ostiraleko laneguna laburra zen, bestela edozein aitzakiarekin etxera hanka egingo lukeen. Piperminezko pentsamendu haiek guztiak nondik ote zetozen. Agian berak jakin ez arren, sentimendu frustratuen ondorio ziren edo... zer zekien ba berak. Gaueko mozorro jai demonio hori heltzea beharrezkoa zuen, amets ero neurrigabeak beteko zituen hori topatzeko.

Azkenik iritsi zen otordua, hortaz, lanetik irteteko beta. Gehienetan taberna txiki hartan bazkaltzen zuen, aitzitik, etxera joatea aukera hobea izango zela pentsatu zuen. Kotxera sartu zen; 92.urteko "Renault 19" gorri bat, bigarren eskukoa. Bizitzan izandako lehenengo laneko aurreneko soldatarekin erositako. Bidean Janis Joplinen "Peace of my heart" entzuten zihoan. Horixe sentitzen zuen; "hartu nire bihotza, hautsi ezazu, kendu iezaiozu zatitxo bat, hori bada ondo sentiarazten zaituena.." Hitz horiek oso-osoan, zintzoki nori eskaini falta zitzaion. Akaso, gau horretan zorteak atea jo eta hainbeste amestutako maitalea agertuko zen.

Ohiko espaloi alboan autoa aparkatu eta etxera igo aurretik okindegitik pasatu nahi zuen. Goiz osoan zehar hamaikatxo ustekaberen ostean, azukre apur baten premian zegoen. Dendara sartu zen. Jende-ilaran ia inor ez zegoenez, laster batean eskatu zuen pastela.

Kale osoa zeharkatu eta etxeko atarira heltzear zegoela konturatu zen; bazkaltzeko ogia hartzea ahaztu zitzaion. Buelta eman eta berriro abiatu zen okindegira. Bost minutu baino gutxiagokoa izan zen joan-etorria baina ordurako jendez beteta zegoen mostradorea. Aguretxo zahar bat zen azkena, beraz, harexen atzean ipini zen bere txanda iritsi arte.

Jende-ilara astiro zihoan eta Eba gose zenez, opiltxoak jaten hasi zen. Aspertuta zegoen, gorantz, beherantz, albo batera eta bestera begira. Espazio txiki baina panpoxa zuen okindegi hark; zorua azulejo beltz eta zuriz, hormak ere kolore argidunak eta salmahaiaren osteko aldean egurrezko apalak, ogi eta opil ezberdinekin beteta. Mostradorearen alde batean, ate bat bazen zabalik zegoena eta barruan okinaren beso gihartsuak begietsi zituen. Eba krema eta esne-gainaren zapora gozoan urtuta zegoen eta pentsatu zuen, okina dastatuz gero hain zoragarria izango ote zen. Pentsatu zuen haren ezpainetan, gorri, mamitsu, bizi gaziz, marrubiak xanpainetan bezala. Miazkatu zituen, kosk egin zien barruko zuku guztia xurgatu arte. Haren nektarra oparia zen. Gorputzak kontrolez kanpo gehiago eta gehiago eskatzen zion, esentzia eztitsu hura garrasika eskatuz. Tipo hura osorik irensteko bultzada kontrola ezina zen; gorputzeko bazter guztiak infernuko sua baino goriago zituen, eskuak, bularrak, izterrak, hankartea... garunak ere beroaldiarekin kiskalita zituen.

Okindegiaren erdi-erdian mugimendu lizun antzekoak egiten ari zela ohartu zen Eba, ia ia hasperen batek ere ihes egin zion. Handik hanka egin behar zuen eta dozena erdi bat pertsona bazeudenez bere aurretik, disimuluarekin ilaratik urrundu eta etxerantz zuzendu zen.

Heldu zen ba atarira. Lau pisuko eraikin zaharra; aurreko fatxada guztia gorri-ilun koloreko adreiluzkoa eta beltzez margotutako burdinazko balkoi guztiak petunia moreak eskegita zituztela, laugarren pisuko ezkerrekoak izan ezik; Ebarenak . Atea zabaldu eta igogailurantz joan zen. Sarreran hall txiki bat zegoen. Alde batetan ispilu handi zegoen bat eta aurrez-aurre landare-ontzi handi bi zuhaixkekin. Granitozko bost eskailera eta ondoren beste ate bat. Ostean pasabidetxo bat eta amaieran igogailua. Ezkerreko horma gris argi kolorekoa zen; eskumakoa, fondo urdina eta gainean hainbat lore ezberdin zituen paperez forratuta zegoen. Horrela ba, botoari eman zion igogailua beheko solairura jaitsi zedin. Giltzen hotsa entzun eta atzerantz begiratu zuen. Hirugarreneko auzokoa zen, Helena. Biak ala biak igo ziren igogailuan gorantz. Sartu zenetik sumatu zuen auzokidearen usain dotorea, jasmin airea zeukan, bizia eta gozoa. Emakume koloniak anitz atsegin zituen, atsegin bakarrik ez, gustukoak zirenean sekulako kalentura sartzen zitzaion hatz puntetatik, azkeneko ile muturreraino. Helena, jainkoetatik sortutako emakumerik ederrena, "iluntasunean distira egiten

duen argia", zisne bat bezain gardena eta ederra. Lurrin aratz hark inguratu egin zuen Eba ideiak guztiz nahasteraino. Tentagarria hirugarreneko neskatoa, sudurra haren lepora hurbildu eta hortzak haragian iltzatuta arropa desagerraraziko zion, goitik behera aroma guzia xurgatzeko. Oraingoan ez zebilen ametsetan, gogoak zentzuari gudua irabazi zion, ausardiaz bete zen eta <<tirrin>> heldu ziren hirugarren solairura.

- Gero arte - agurtu zuen Helenak.

Eba ez zen agurtzeko gai izan. Begirada neskatoarengan finkaturik zeukala, igogailuko atea itxi zen laugarren pisura igotzeko. Aztoratuta heldu zen etxera. Duxa hotz bat hartzekotan zegoen, baina ohe gainean etzan eta loak hartu zuen. Iratzarri zenerako, baziren gaueko hamarrak, izan ere, egunak zeharo jota utzi zuen. Salto batez altxatu eta korrika sartu zen dutxara. Eskerrak janzteko orduan aukeratutako mozorroak ez zeukan konplikaziorik; "Loti Ederra" ipuineko aztiz jantzi behar zuen, "Malefica" delakoa. Soinekoa beltza eta luzea zen, bularraren erdiguneraino irekidura itzela zuena eta ezkerreko izterraren erditik beheraino beste bat. Idunekoak puntan kanporantz eta zinta beltza samatik lotuta. Buru guztia estaltzen zuen zorroa, gorantz adar handi birekin, takoidun zapatak - beltzak hauek ere - eta azkenik makillajea. Egunero bezala, begiak ere arroparen kolore berdinez margotuak eta ezpainak gorriz. Demasa Ebaren mozorroa. Itxura harekin, edozein bere aurrean makurtu, belaunikatu, narras jar zezakeen.

Azkenik iritsi zen hainbat itxarondako unea. Maskarada hori nolakoa izango zen pentsatzen joan zen bide guztian eta konturatu orduko bazegoen taberna irlandarraren aurrean. Zabaldu zuen atea eta han ikusi zituen auzuneko lagun guztiak eta beste horrenbeste jende; denak kolore eta mozorro ezberdinez apaindurik. Taberna izugarri polita zegoen. Sabaia globo beltz eta laranjekin beteta. Horma baten kontra mahai denak ilaran, mantel ilunekin eta gainean burezurak, armiarmak, "garunez" betetako ontziak, kandelak eta kateak. Izkin guztiak armiarma-sareekin eta bonbillak zuntz morearekin estalirik, argi-efektu beldurgarri antzekoa sortzeko.

Sekulako musika entzun zitekeen, 70 eta 80. Hamarkadetakoa. Funk amerikarra, reggaea, europar punka, Euskal Herriko rock erradikala... primerako giroa. Aretha Franklinen "Respect" abestia dantzatzen ari zen,

bere gogokoena, norbait hurbildu zitzaionean. Txanodun kapa luze eta iluna zeraman, aurpegia urre-koloreko maskara batekin gordeta. "Vidocq" filmeko "Alkimista" etorri zitzaion burura; betiko gaztetasuna eskuratzeko, gizabanakoen bizitza xurgatzen zuen hiltzailea. Gerturatu orduko, lurrin bizi hura sudurretik zuzenean kaskezurreraino sartu zitzaion, goitik behera gozamen lurrikara handi bat eraginez. Ebak bazekien zer gertatzen ari zen, ezaguna zuen sentipen hura. Gorputzak zorrotz erantzun zuen pizgarri haren aurrean; gogo biziz baietz zioen.

Lagun misteriotsuarengana hurbildu zen pantera beltza ehizakiari hurbiltzen zaion legez, isil-gordean baina kementsu. Haren inguruan hasi zen dantzan, leun, samur, indioilarrak lumarik ederrak erakusten dituen moduan. Biak bat egin zuten zoramenezko burbuila baten barruan. Alkimistak Ebaren aldakak setiatu zituen belusezko eskularruz jantzitako eskuekin, hego haizea bezain epel eta gustagarri. Horrelakoa izango ote zen haren azala ere? Gerrialdetik gora zihoazen eskularru atsegin haiek eta bularrak estutu zizkion. Ebaren bihotza aztoratuta zegoen, presaka egiten zuen taupada eta arnasa hartzea kosta egiten zitzaion. Odolak, erupzioan dagoen sumendia bailitzan garraiatzen zuen elektrizitatez jositako energia, gorputzeko bazter guztietara. Une hartan belarrira hurbildu eta esan zion "Misteriotsuak":

- Paradisura hegan igoko zaitut. - ahopeka maskaradunak.

Eba ia ia bertan zorabiatu zen hainbeste grinaz desio izan zituen hitz haiek entzutean. Tabernako zalapartarekin ezin izan zuen ahotsa ondo entzun, baina doinu zirraragarria zen, barrenak nahasteko bezalakoa, itsaslaminen kantu xarmagarria. Sutan zegoen, neurrigabeko tenperatura hura baretzeko, Alkimista delako hark soilik zuen pozoi magikoa.

Heldu zen berebiziko aukera, zalantza izpirik gabe galdetu zion:

- Nire ate guztiak zabalik daude zuretzat - etxeko giltza erakutsi zion - bagoaz?
- Goazen - erantzun zuen Misteriotsuak.

Eskutik heldu, tabernatik irten eta Ebaren etxerantz abiatu ziren. Bidean, atarian, igogailuan, elkar haztatzen, sumatzen, ukitzen ziharduten bata bestearen azkeneko zirrikitua agerian ipini arte. Haren azala, ezpainak,

mingaina elixir sakratuena baino desiragarriagoak ziren. Burmuinetako eskumako parteak soilik biziraun zuen sentimendu haize-erauntsi hartara; emozioarenak.

Etxera sartu bezain laster, Misteriotsuak horma-kontra jarri zuen eskua izterretik gorantz barneratuz, Bermudetako hirukietako uhartera heldu arte. Irla hartan landaredia irrikatsu zegoen ur egarriz eta hasi zen euria eta ernatu ziren landareak. Beroa, sua, gogoa hain jasanezina zen, non Ebak plazer oihu bortitza askatu zuen. Nor ote zen beste dimentsio batera garraiatzeko gai izan zen Eros, Psique, Adonis, Afrodita ... delako maitale basati hura!!! Haren aurpegia betirako gogoan, ametsetan, bizitzan, esnatzean, pozean, penetan, etxean, lanean, arrakala guztietan gorde nahi zuen. Heldu zion urre-koloreko maskarari eta «Braul!» garrasika iratzarri zen izenditan blai.

Ezin zuen sinetsi, txundituta, harrituta zegoen, bere onetik guztiz irtenda. Barre egin, negarrez hasi... ez zekien nondik jo. Horrelako amets eroak, beroak, gozoak edo mikatzak... nondik ote zetozen, zergatik, zertarako... zenbat galdera erantzun ezin momentu hartan. Ideiak argitu eta garbitu behar zituen. Komunera joan zen beraz, dutxa fresko bat hartzera. Urak azalean ematen zizkion kolpeak asko erlaxatzen zuten, gustagarria zen oso. Amestutako maitale guztien inguruko hausnarketa egiten hasi zen. Euretako bakoitzetik ezaugarri berezienak erakarri zuten, baina azkeneko amorante hark Ebak amestu eta pentsatutako fantasiak betetzeko gai izan zen... orduan atsekabetu egin zen. Eta sekulan desiratu izan dituen gurari gorienak beteko zituenik ez bazuen aurkitzen?

Xaboa hartu eta besoak igurzten zebilela, bere bularrei so egin zien. Ederrak ikusten zituen, borobilak, tenteak, azal gozokoak. Ferekatu egin zituen eta gustatu zitzaion. Geriza likorez betetako bonboni goxoak, edonoren gozamenerako opari prestuenak. Eskua sabeletik igaro zuen, atzamarrarekin zilborra sakatuz; txikia eta polita. Kilimak sentitu zituen sabelalde guztian. Bere aldaka nabarmenak inguratu zituen, Venus mendiarri begira, hamaikatxo sekretu gordetzen zitun leizea. Xaboitu zuen eta kobazulotik arrano beltzaren deiadarra irten zen hegaz, iheska. Orduan ulertu zuen. Handik eta hemendik, batera eta bestera, gorantz eta beherantz, ametsetan eta errealitatean, hain urrun zebilen maitale bila eta

uste baino hobeto ezagutzen zuen. Konturatu zen. Ez zegoen jendartean, ezta kalean, ez dendan, ez tabernan, ezta inongo jaietan. Barrura begiratu eta hortxe aurkitu zuen Ebak bere Afrodita.

Nork ezagutzen du ba norbere burua, gorputza, gogoa, bihotza, nahia norberak baino hobeto? Nork bilatuko ditu gure zirrikietan nahi ezkutuenak betearazteko, guk baino? Nork egingo du gugatik amets, bizi, aztertu, probatu, saiatu, imajinatu, asebate, berotu, goritu, gustatu, hobetu, gozatu eta gauzatu, guk geuk ezpada?